

Lasarte-Oriako Udala

Askatasunaren Parkea

Erabilera berrietarako ideiak biltzeko parte hartze prozesua

2018ko ekaina-iraila

AURKIBIDEA

1	KOKAPENA	3
2	PROZESUA.....	3
2.1	PROZESUAREN HELBURUA.....	3
2.2	PROZESUAREN LABURPENA.....	3
2.2.1	Aurrelanak	3
2.2.2	Galdetegia(k).....	4
2.2.3	Kale inkestak	5
2.2.4	Lan saio presentziala.....	5
3	PROZESUAREN EMAITZAK.....	5
3.1	HERRITARREK BETETAKO GALDETEGIEN EMAITZAK.....	5
3.1.1	Galdetegia.....	5
3.1.2	<i>Besteak</i> atala.....	9
3.2	KALE INKESTEN EMAITZAK	14
3.3	TEKNIKARIEN GALDETEGIEN EMAITZAK	17
3.4	LAN SAIO PRESENTZIALA.....	20
4	KONTUAN HARTZEKOAK	21
4.1	PARKEAK DUEN BABES JURIDIKOA	21
4.2	AURREKO PARTE HARTZE PROZESUEN EMAITZAK	22
5	ONDORIOAK.....	23

1 KOKAPENA

Lasarte-Oriako Udala herritarren parte hartzea sustatzen hasi zen duela urte batzuk. Bide horretan, hainbat parte hartze prozesu bideratu ditu. Partaidetzazko aurrekontuak edota urbanismo sailetik bideratu diren hainbat prozesu horren adibide dira. Gaur egun, Gipuzkoa mailan, erreferentziazko Udala da Lasarte-Oria herritarren partaidetzaren inguruan.

Kudeaketa publiko egoki eta eraginkor bat egiteko asmoz, eta aipatu berri dugun herritarren partaidetzaren bidean sakontzeko helburuz, Askatasunaren Parkearen erabileraren inguruko parte hartze prozesu bat abian jarri da 2018ko apirilean. Izan ere, parkearen erabileraren inguruko eztabaida, parkea bera sortu zen momentu beretik sortu baitzen.

Horrela, berrerabilera pentsatzeko hainbat eta hainbat eskaera kontuan hartuta, prozesua martxan jartzea erabaki du Udalak.

2 PROZESUA

2.1 PROZESUAREN HELBURUA

Prozesu honen helburua parkearen erabileraren inguruan ahalik eta ideia gehien biltzea da. Hau da, prozesua ideia bilketa erraldoi bat da, eta ez du erabaki ahalmenik.

2.2 PROZESUAREN LABURPENA

Prozesuak hiru fase ditu

2.2.1 Aurrelanak

Prozesua herritarrei aurkeztu aurretik, egitasmoa gidatuko duen lan taldea martxan jarri da. Talde motor bat osatu da Udalean, bertan, kultura saileko Xabier Goitia, Idazkaritzako Xabier Arozena, Hirigintzako zinegotzia Agustin Cano eta Udaleko komunikazio burua den Iñaki Mugicak parte hartu dute.

Talde honek prozesuaren alor teknikoa gainbegiratu du Emun Kooperatibako Olatz Irizarrekin batera: egutegia, galdetegiak, komunikazioa....

Prozesua prestatu ondoren, ekainaren 7an Lasarte-Oriako alkateak, Jesus Zaballosek, Hirigintza zinegotziak, Agustin Canok, eta Emun Kooperatibako Olatz Irizarrek prentsaurreko baten bidez herriari aurkeztu diote parte hartze prozesua.



2.2.2 Galdetegia(k)

Galdetegia buzoneatu egin da eta Lasarte-Oriako eskoletan haurrei banatu zaie, beraien gurasoengana heltzeko asmoarekin.

Talde motorrean aukeratzeko galderak erabiltzea erabaki da, bizilagunek errazago bete dezaten. Hala ere, tartekak utzi dira ekarpenak ere jaso ahal izateko.

GALDETEGIA-CUESTIONARIO

Azaldu hemen zure arantarak eta proposamenak. Behin orria bete, urte agoan herriko parketara, herriko udalaren sportzeta, gimnasioa, bulegoan, Udaltza, Zaharretan, Herriko Zentroan, Kulturatzara, Villa Miramontean, Erakutsien Zentro Zibikoan, Gaztetxean eta Ambulatorioan.

Expón aquí tus respuestas y propuestas. Deposita la hoja una vez rellenada en los buzones de participación ciudadana instalados en dependencias municipales: Ayuntamiento, Vialo, Polideportivo, Casa de Cultura, Villa Miramont, Centro Cívico de la Mujer, Gaztetxi y Ambulatorio.

Adina:

- 12-15
- 15-20
- 20-30
- 30-40
- 40-50
- 50-60
- 60k gora

Asiatzen zara Parkean erabiltzen duzu?

- Bai
- Ez

Zertarako erabiltzen duzu?

- Baktsianin jolasteko.
- Haur enpukastara jolasteko.
- Aire librean jolasteko.
- Pasatzeak.
- Barnean atseden hartzeko.
- Besterik erabiltzeko.

Zure ustez Udaltza beste erabilera bat ematen baldin luke parkeari?

- Bai
- Ez

Zain izan behar izateko erabilera honi?

- Kirol guneak: futbola, futbito, pista, tenis, pista, boliboli, pista.
- Haur entzako guneak: gaur egun dauden parkeak baina parke handiagoak.
- Haur entzako edo entzako guneak: adineko pertsonentzako parkeak.
- Bai guneak: parke, herriko ospakizun eta ekimen antolatzen diren parkeak.
- Natur guneak: zona ideberdea, hara, ura...
- Antolatza erabiltzeko gunea.
- Besterik erabiltzeko.

Berba hito eta irapariak:

.....

.....

.....

Edad:

- 12-15
- 15-20
- 20-30
- 30-40
- 40-50
- 50-60
- Más de 60

¿Utilizas actualmente al Parque de la Libertad?

- Sí
- No

¿Para qué lo utilizas?

- Para jugar al balón.
- Para ir al parque infantil.
- Para todo tipo de juegos al aire libre.
- Para pasear.
- Para descansar en sus bancos.
- Otro tipo de usos.

¿Consideras que el Ayuntamiento debería habilitar al parque para otros usos?

- Sí
- No

¿Cuáles deberían ser esos usos?

- Espacios deportivos: pista de fútbol/futbito, pista de tenis, pista de voleibol.
- Espacios ludicos para la infancia: parques infantiles más grandes que los actuales.
- Espacios ludicos deportivos para la tercera edad: parque de ejercicios para personas mayores.
- Espacios festivos: utilizar el parque para algunos celebraciones o eventos del pueblo.
- Espacios naturales: zona verde/zona arena/zona agua.
- Espacio para el mercado/lle semanal.
- Otros usos.

Otras aportaciones:

.....

.....

.....

ZURE PROPOSAMENA KONTUAN HARTUA IZANGO BADA,
ZEURE IZENDETUREKIN ETA NAN ZENBAKIAREKIN BETE BEHAR DUZU
PASA QUE TU PROPUESTA SEA TENIDA EN CUENTA
DEBES RELLENARLA CON TU NOMBRE, APELLIDOS Y NÚMERO DE DNI

Izena eta abizua: Nombre y apellidos:

DNI:

ESKERRIK ASKO ZURE EKAR PENAGATIK
MUCHAS GRACIAS POR TU APORTACION

Herrian banatu diren galdetegiak batera, inkesta bat pasatu zaie google docs tresna erabiliz hainbat udal teknikariri, kalean ekimenak antolatzen dituzten udal teknikariei hain zuzen ere.

Galderak herritarrei egindako berdinak izan dira, baina beraien lanera egokitu dira.

2.2.3 Kale inkestak

Larunbata goiz batean eta ostegun arratsalde batean parkearen inguruan kale inkestak egin dira. Galdetegian egiten diren galdera berdinak egin dira, baina kale inkestetan jendea gehiago luzatu da erantzunetan.

2.2.4 Lan saio presentziala

Parte hartze prozesuari itxiera bat emateko, udazkenean, urriaren 24an saio presentziala egin da Mercero gunean. Irailaren 19an lehenengo deialdia izan zen, baina parte hartze eskasa dela eta, urriaren 24ra atzeratu da saioa.

3 PROZESUAREN EMAITZAK


3.1 HERRITARREK BETETAKO GALDETEGIEN EMAITZAK

3.1.1 Galdetegia

3.1.1.1 Jasotako galdetegi kopurua

491 galdetegi jaso ditugu. Gehientsuenak pertsonak banaka betetakoak dira, baina proposamen kolektibo moduan aurkeztu den galdetegi bat ere badago.

3.1.1.2 Parte hartzaileen adina




Adinari dagokionez, aipatu behar dugu 18 edo 16 urtetik beherakoekin nola jokatu ez genuela aurretik adostu. Eta, nahiz eta gurasoengana heltzeko asmoarekin egin, eskoletan ere banatu genuela gogoratu beharra dago.


Hala ere, prozesuaren helburua ideiak jasotzea denez, eta 16-18tik beherakoak gutxi direnez, onartu egin ditugu.

3.1.1.3 Galdetegiaren galderak:


- Askatasunaren Parkea erabiltzen duzu?




Zertarako erabiltzen duzu?



Zure ustez Udalak beste erabilera bat eman beharko lioke parkeari?



Zein izan beharko litzateke erabilera hori?



■ Kirol guneak: futbol/futbito pista; tenis pista; boleibol pista.../ Espacios deportivos: pista de futbol/futbito; pista de tenis; pista de voleibol...

■ Haurrentzako guneak: gaur egun dauden parkeak baino parte handiagoak/Espacios lúdicos para la infancia: parques infantiles más grandes que los actuales

■ Hirugarren adinkoentzako guneak: adineko pertsonentzako guneak/Espacios lúdico-deportivos para la tercera edad: parque de ejercicios para personas mayores

■ Jai guneak: parkea herriko ospakizun eta ekimen batzuetarako erabili ahal izatea/Espacios festivos: utilizar el parque para algunas celebraciones o eventos del pueblo

■ Natur guneak: zonalde berdea, harea, ura.../Espacios naturales: zona verde/zona arena/zona agua....

■ Asteko azoka egiteko gunea/Espacio para el mercadillo semanal

3.1.2 **Besteak atala**

Esan bezala, hautatu beharreko galderekin batera tarte txuriak ere utzi ditugu, jendeak nahi dituen ekarpenak egiteko. Hau da bertan jasotakoa:

Gaur egun zertarako erabiltzen duten galdetuta:

- De paso.
- Estar con mis nietos mientras juegan.
- Txakurra paseatzeko.
- No lo usamos por que no tiene utilidad.
- Leer.
- Gutxi erabiltzen dugu.
- Bankuetan solasaldian ibiltzeko.
- Para dar meriendas en los bancos.
- Para lo que se puede, porque hay mucho espacio, pero no aprovechable.
- Para andar en patines y bici.
- Ocio para los jóvenes.
- Pokemon Gon jolasteko.
- Belarretan atsedena hartzeko.
- Lo usa mi hijo de 9 años.
- Bularra emateko.
- Para ir al water.
- La zona verde es un campo de minas, cualquiera lleva a los niños.

Galdetegian izan beharreko beste erabilerak atalean jasotakoak:

- **Errepikatuenak:**
 - Frontoia
 - Parkour Park
 - Parke estalia
 - Txakurrei debekatzea
 - Gune estalia
 - Adin ezberdinetarako parke handiagoa
 - Jardinak lurraren mailara jaitsi
 - Baloian jolasteko gune itxia parkean eta Okendon debekatua

- **Asko errepikatzen diren bi idea:** gaur egun espazioari ez zaio probetxurik ateratzen eta parkeak txikiegiak dira

- **Bestelakoak/denetarik:**
 - Toki libreak, tokia haurrak jolasteko, patinatzeko.../ Gune berde gutxiago eta gune ireki gehiago hurrek jolasteko tokia izan dezaten (txiba, soka, goma, kromoak, txirringa, patinetea...).

 - Creo que debería haber un espacio infantil mayor para los más pequeños; pista de fútbol, etc.

 - Para más mayores y para nuestros ancianos zona de paseo, bancos diferenciados de los pequeños para que no haya riesgo de recibir balonazos. A parte, bueno parte del parque cubrir con una especie de tejabana.

 - La zona verde está bien, pero creo que hay espacio para dar otros usos y viendo que se está prohibiendo jugar con el balón en las plazas, los espacios deportivos me parecen la mejor opción.

 - Ze behar dago dirua xautzekoarena? Ez al dago beste gauza hobea egitekorik jada egin dagoen gune bat berreraikitzea baino? Txoroak al gaude? Lehentasuneko gaiak aurrera atera lehendabizi.

 - Lasarte necesita un parque infantil grande y con elementos novedosos, como en otros pueblos: tirolina, rocodromo, toboganes grandes etc. y además cubierto.

 - Lasarten berdegune lasaiak behar dira, zuhaitz artean haur txikiekin jolastu eta paseatu ahal izateko. Denak ez du asfaltua edo enbaldosatua egon beharrik. Lasaitasunerako lorez eta berdegunez betetako eramuak ere behar dira.

 - Espacios más amplios para pasear (ahora te tropiezas con patinetes, bicis, balones...)/ Sitio más amplio para pasear.

 - Mejorar y reformar los parques del pueblo y prohibir la entrada a perros y si existe tal prohibición, hacerla cumplir.

 - Espacios cubiertos: bien diseñados, con luz natural, que permitan desarrollar diferentes actividades en su interior.

 - En su día ya se gastó y está bien, se puede mejorar lo que hay.

- Ulergaitza, herriko parke berriak berritzen, eta zaharrak ikutu gabe. Norentzako egin zenuten parkea?
- Arreglar todos los parques y jardines del pueblo./Hay más parques más allá del centro que necesitan mantenimiento y actualizaciones mucho más que este Parque de la Libertad. Todos pagamos impuestos, ¿por qué unos barrios se cuidan más que otros? Es injusto.
- Eliminar arena en Tximistarreta.
- Un espacio abierto con un kiosko para las verbenas y otras actividades.
- Bancos más cercanos unos de otros, formando como pequeñas plazas para charlar.
- Mercadillo semanal y eventos, celebraciones del pueblo. ¿Podría estar cubierto?
- Okendo zaharra berpizteko, ekitaldiak egin ahal izateko eta umeek pilotan lagunekin bertan aritzeko aukera izateko, urrutira joan gabe.
- Más iluminación en la plaza. Hay poca iluminación. Se queda muy a oscuras.
- Dejar el parque como está/ dagoen bezala utzi.
- Hacer un jardín de flores./Poner más flores, está soso.
- Mesas para jugar, leer...con papeleras a los lados./zelaietan mahaiak jarri/Mahaiak
- Limpieza del lago y bajo de los árboles, las ramas dan al suelo y no se puede tumbar debajo de ellos. Podar los árboles para que no estén tan altos.
- Zona verde como Tximistarreta con mesas para verano o buen tiempo./Algo tipo el parque de Tximistarreta, un Central Park, salvando las distancias.
- Lasarte-Oria necesita una piscina con zona verde para familias para verano. Con cuota de pago.
- Parque de recreo para todos.

- Zona para carruseles de fiestas de San Pedro.
- Los laterales de los bancos son horribles y frios.
- Txakurrentzat, bereziki, beste gunek bat egokitzea ondo legokela uste dut (ibai aldean edo...)/Txakurrentzat gunek itxia bertan kaka egin ahal izan dezaten eta kirola egin ahal izan dezaten.
- Bankuak eta baldosa gunek bere horretan utziko nituzke, adinduak eta elbarrituak ere, beran gurgildun aulkietan, eroso ibili zitezten.
- Parkea, bai edadetuentzat, bai gazteentzat, bai umeentzat egokia gelditu beharko litzatekeela uste dut. Denak elkarrekin egotea, elkar ikusiz, gizartearentzat ona dela pentsatzen dut. Nahiz eta gero bertan, bakoitzak bere gunea izan./Un parque de grandes y pequeños, unido que no esté alejado entre sí, y más grande.
- Egunen batean , lurzorua zabaltzeko aukera izango balitz (mojek lursail gehiago emanaz gero edo) berriz ere, lehengoko frontoia jarriko nuke.
- Korrika egiteko pista.
- Iturriak.
- A parte del Parque de la Libertad pienso que hay demasiados jardines en esta zona, mal cuidados que también podrían ser mejor utilizados.
- Itzal gehiago eserlekuak dauden lekuetan.
- Es un parque nuevo que está bien como está. Es una zona verde en el centro del pueblo, y eso es bonito para el pueblo.
- Más cosas para los adolescentes, a ver si dejan las maquinitas, móviles...
- Hacer una zona diáfana para que los niños jueguen sin que la gente que está en la plaza corra peligro.

- Komun publikoak.
- Dar cara al río Oria.Kristalezko aterpe bat ibai ertzean.
- Eraikin bat bezala Udaletxe ondoan, sarrean, kortinakin itxita, haizea, euria eta hotza kentzeko. Bi adibide, Tolosan Tinglado eta Hernanin atsegindegi.
- Faltan espacios para adultos, para poder estar en calma.
- Plaza inguruan zonalde berdeak jar daitezke eta plaza erdian kirolguneak; ekimen eta ospatzeko jai egunak plaza alde batera edo bestera jar daiteke.
- Dejar más explanada para usos diversos.
- Pista de fútbol con redes altas para no alterar el uso de los parques infantiles.
- Bidegorris.
- Anfiteatro antzeko gune bat.
- ¿Por qué no formar un equipo de traineras? Sería estupendo. No todo es fútbol.
- Zona de mercadillo, pero tapada.
- Bi zonalde bereiztuko nituzke: errekatik gertuen, haur eta nerabeentzat: kirol gunea (futbito pista eta saskibaloia); eta udaletxetik gertuen: haur txikientzat lur biguin zabala non jolas parke dexente handiagoa jarri.
- Okendo plazatik oholtza kentzeko zeozer.
- Baratza edo landareak, natura jarri, pusketatxo bat.
- Hacer un parking: hacer otro parking en Urbarte quitando una parte del jardín botánico.
- Wifi sarea jarri.


- Una pista pequeña para jugar a petanca.
- Habilitar el espacio para todos: conciertos, fiestas, concursos de pintura, oleos,...
- Aparcabicis
- Tirolina
- Los futuros proyectos sería conveniente que se dispusieran a votación popular.

3.2 KALE INKESTEN EMAITZAK

3.2.1.1 Egindako inkesta kopurua


52 pertsonari egin zaie inkesta kalean. Horietatik 31 larunbata eguerdi batean (ekainaren 8an) eta beste 21 ostegun iluntze batean (ekainaren 21ean).

3.2.1.2 Parte hartzaileen adina




3.2.1.3 Galdetegiaren galderak:


■ Askatasunaren Parkea erabiltzen duzu? Utilizas actualmente el Parque de la Libertad?




■ Zertarako erabiltzen duzu? ¿Para qué lo utilizas?



- Zure ustez Udalak beste erabilera bat eman beharko lioke parkeari? ¿Consideras que el Ayuntamiento debería habilitar el parque para otros usos?



- Zein izan beharko litzateke erabilera hori? ¿Cuáles deberías ser esos usos?




3.3 TEKNIKARIEN GALDETEGIEN EMAITZAK

3.3.1.1 Egindako inkesta kopurua

Udaleko teknikari batzuei ere bidali zaie inkesta, espazio publikoekin harremana izan dezaketen teknikariei hain zuzen ere. Guztira 11 teknikariri bidali zaie.


Horietatik lau izan dira google docseko galdetegia bete dutenak.

3.3.1.2 Parte hartzaileen Saila edo Departamentua




3.3.1.3 Galdetegiaren galderak:


- Gaur egun, Askatasunaren Parkea erabiltzen duzu zure lanarekin zerikusia duten ekintzak antolatzeko?




- Zertarako erabiltzen duzu? Nola?



- Zure departamentuaren ikuspegitik, Udalak Parkea beste erabilera batzuetarako egokitu beharko luke?



Ikuspuntu teknikitik, zer nolako erabilera izan beharko litzateke?



Besteak atala:

- Gune estali handi bat beharko luke, ekintza horiek urteko edozein sasotan egin ahal izateko.

- Erabilera anitzeko (kirol ekitaldiak, azokak, jaialdiak, aisialdia...) gune ESTALIA (ez itxia) egokitu beharko litzatekeela iruditzen zait.

3.4 LAN SAIO PRESENTZIALA

Lan saio presentzialean parte hartzea ez da oso altua izan. Zazpi lagunek baino ez dute parte hartu. Hala ere, parte hartzea oso anitza dela esan daiteke, bai adinari dagokionez, baita parkean egin beharreko ideien sailkapenari dagokionez.

Jende gutxi egotean, lan saiorako prestatutako dinamikak ez dira erabili, eta elkarrizketa-eztabaida abiatu da denen artean. Hala ere, elkarrizketa edo eztabaida hiru ataletan banatu daiteke:

● **Sarrera-parkearen inguruko araudia:**

Saioaren hasieran, parkeak berak dituen mugak gogoratu dira. Alde batetik, parkeak duen “babes urbanistikoa” gogoratu da, eta beste alde batetik, aurretik herrian egin izan diren parte hartze prozesuak aipatu dira.

Arau urbanistikoa eta beste parte hartze prozesuen ondorioen fotokopiak, parte hartzaileen eskura jarri dira.

● **Bakoitzaren nahiak edo ideiak:**

Hasierako faktore garrantzitsu hori komentatu ondoren, bakoitzaren nahiei erreparatu diegu. Honako ideak atera dira parte hartzaileen artean:

- Erabilera anitzeko gune estalia, herritar guztientzako.
- Frontoia-mojen komentuaeren horma erabilia.
- Petanka bat.
- Arkoak akristalatu.
- Baloiekin jolasteko gune bat sortu, gune konpartituetan ez molestatzeko.
- Parkea handiagoa, adin ezberdinetarako, eta ahal bada, estalia.
- Lorategiak lurraren mailara jaitsi.
- Txakurren erabilera mugatu.
- Argitasun gehiago, gaez beldurra ematen du.

● **Herriaren beharrak:**

Bakoitzaren nahiak entzuteko tarte hartu ondoren, herriaren beharrei erreparatzen saiatu gara. Hau da, bakoitzaren nahietatik haratago joateko saiakera egin dugu.

Parte hartzaileak adostasunetara heltzeko arazorik ez zuten izan, bakoitzaren nahiak kontuan hartuta komunitatera begiratzeko gaitasuna izan zuten guztiek, eta ideia berriak atera ziren. Hona hemen:

- Espazio ezberdinez osatutako parkea:

Parkea handia eta luzea da. Espazio edo gune ezberdinak egiteko aukera ematen du horrek. Gune ezberdin horiek, adin eta aisialdi mota ezberdinak kontuan hartuko beharko lituzke.

- Elkarbizitzarako gunea:

Tokia atsegina izan behar da, erlaxatzeko tokia. Edozein lasartearrentzat, bere adina edo aisialdia bizitzeko modua ezin da muga izan. Horretarako, ez da arriskurik egon behar inguruan (baloikadak jasotzeko arriskua adibidez). Jende guztiak konpartitzeko gunea izan behar da. Elkarbizitzarako gunea izan behar da.

- Herriari nortasuna emango dion parkea izango da:

Parke honek nortasuna eman behar dio herriari, herriaren muina izan behar du. Guztion elkargunea izan behar du. Bere kokapenak (herriaren erdian eta Okendo plazaren ondoan) horretan laguntzen du.

Parkeak hiru helburu horiek lortzeko, hainbat ideia bota dira:

- Aipatu berri ditugun espazio ezberdinak bereiztea: kirol guneak, adin ezberdinetarako parkeak, paseatzeko eta erlaxatzeko tokia...
- Zerbait estaltzea:
Parke estali bat edota gune estali bat eraikitzea, haurrak eta gaztetxoak euria dagoenean jolasteko eta bertan mota ezberdinetako ekimenak egiteko. Toldo handi bat izan daiteke.
- Banku gehiago jarri eta borobilean elkarrizketak sustatzeko.
- Itzal gehiago emango duten arbolak landatu.
- Zonalderen batean garai bateko baratzak jarri, herritarrek erabil ditzaten.

Hau guztia lortzeko, argitasun egokia jarri eta txakurren erabilera arautu.

4 KONTUAN HARTZEKOAK

4.1 PARKEAK DUEN BABES JURIDIKOAK

Idea bilketa egiterakoan, ideia guzti-guztiak jaso dira, izan ere parte hartze prozesu honen helburua hori izan da, ahalik eta ideia gehien lortzea. Hala ere, parkeak badu urbanistikoki babes bat, eta horrek aurrerantzean egin daitekeena mugatuko du. Hori dela eta, babes hori jasotzen duten bi dekretuak ere txostenean txerutzen ditugu (dekretua eta dekretuari aldaketa):

2006ko martxoaren 15ean EHAAn argitaratutako 51/2006 dekretua otsailaren 28koa, Lasarte-Oriako Brigiden Komentua (Gipuzkoa) Sailkatutako Kultura Ondasun izendatzeko espedientea Euskal Kultura ondareari buruzkoa uztailaren 3ko 7/1990 Legea egokitzeko dena.



Dekretua.pdf

2007ko urriak 29an EHAAn argitaratutako 177/2007 dekretua, urriaren 16koa, Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) Brigiden Komentua, monumentu izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun izendatzeko espedientea Euskal Kultura ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea egokitzen den Dekretuaren aldaketa egitea xedatzen duena.



Dekretua
aldatzea.pdf

4.2 AURREKO PARTE HARTZE PROZESUEN EMAITZAK

Gaiarekin harremana duten bi parte hartze prozesu abiatu dira Lasarte-Orian azken honen aurretik.

Sasoeta sasoitu parte hartze prozesua: 2014koak dira bi txostenak.

Parte hartze prozesu honetan, Sasoetan eraitsi behar ziren hainbat pasabideetan, espazio publikoak nola diseinatuak izango ziren erabaki zuten parte hartzaileek. Prozesuaren ondorioak, interesgarriak dira beste edozein espazio publiko antolatzeko orduan, horregatik, txertatzen ditugu txosten honetan.



Sasoeta Sasoitu
I.pdf



Sasoeta Sasoitu
II.pdf

Euritan ere jolasean parte hartze prozesua: 2016koa da prozesuaren txostena.

Parte hartze prozesu honen helburu nagusia Lasarte-Orian euria egiten duenean jolasteko toki estaliak nolakoak eta non izan behar ziren zehaztea izan zen. Bazituen beste bi helburu ere, batetik, Lasarte-Orian erabilera anitzeko gune estalia non kokatua eta nolakoa izan behar zuen lantzea; eta bestetik, kalean dauden jolas mota ezberdinen hausnarketa bultzatzea.



Euritan ere jolasean!
!.pdf

5 ONDORIOAK

5.1 Parte hartzea, orokorrean altua izan da. Hala ere, bi ñabardura hartu behar dira kontuan: batetik, ideiak ematerako orduan parkearen eremuan dagoen araua ez dela kontuan hartu; eta bestetik, udal teknikarien eta saio presentzian parte hartzea ez dela handia izan. Aipagarria da, jende gaztearen parte hartzea.

5.2 Ideiak lau multzotan sailkatu daitezke:

- **Banakako ideiak:** bertan, galdetegian betetako ideiak bozka kopuruaren arabera ordenatuko ditugu.
- **Ideia kolektiboak:** ideia kolektibo moduan bakarra aurkeztu izan da udaletxeko erregistroan, Parkour Park bat egiteko eskatzen dutena. Baina bada, ideia kolektibo moduan izendatu dugun beste bat ere, frontoiarena hain zuzen ere. Ez da ideia kolektibo moduan aurkeztu erregistroan, baina bozketa kopurua ikusita antolatutako eskaera bat izan dela esan dezakegu.
- **Gehien errepikatzen diren ideiak:** Den-dena hartuta, galdetegiaren besteak atala eta ideia kolektiboak, gehien errepikatu diren bederatzi ideia jasoko ditugu bertan.
- **Saio presentzian adostutako ideiak:** Azken horiek, ideia guztiak kontuan hartuta, parte hartzaileen artean adostutako ideiak dira. Balio berezia dute, izan ere, bertan jasotzen dena ideiak baino zerbait gehiago da. Bakoitzaren ideietatik haratago egin delako hausnarketa saio horretan.

Banakako ideiak	Ideia kolektiboak	Gehien errepikatzen diren ideiak	Saio presentzian adostutakoak
<p>Galdetegian bozkatutakoaren arabera:</p> <p>1.-Haurrentzako gunekak.</p> <p>2.-Kirol gunekak.</p> <p>3.- Natur gunekak.</p> <p>4.-Jai gunekak.</p> <p>5.-Asteko azoka egiteko gunea.</p> <p>6.-Hirugarren adinekoentzako gunekak.</p>	<p>1.-Frontoia</p> <p>2.-Parkour Park</p>	<p>Bestelakoak atalean agertu diren ideiak:</p> <p>1.-Frontoia</p> <p>2.-Parkour Park</p> <p>3.-Parke estalia</p> <p>4.-Txakurrei debekatzea</p> <p>5.-Gune estalia</p> <p>6.-Adin ezberdinetarako parke handiagoa</p> <p>7.-Jardinak lurraren mailara jaitsi</p> <p>8.-Baloian jolasteko</p>	<p>1.-Gune ezberdinez osaturiko parkea izan beharko litzateke.</p> <p>2.-Elkarbizitarako eta konpartitzeko gunea izan beharko luke</p> <p>3.-Herriari nortasuna eman beharko lioke parkeak.</p>

		<p>gune itxia parkean eta Okendon debekatua</p> <p>9.-Argi gehiago jartzea parkean.</p>	
--	--	---	--

- 5.3 Gaur egun parkea dagoen moduan uzten bada, guneari etekinik ateratzen ez zaiola uste du parte hartze prozesuan parte hartu duen gehiengoak. Adostasun zabala dago, berrerabilera pentsatzearen inguruan. Nahiz eta, badiren kontrako iritzi gutxi batzuk ere.
- 5.4 Udala erronka handi baten aurrean dago. Parte hartze prozesu honek espektatibak sortu ditu eta parte hartzaileak egingo denaren zain daude.